

# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure esku dagoen guztia egiten dugu gure enpresaren produktuak ahalik eta leku urrunetara ailegatzeko.

- **Komunikazio kanalak:** Gure denda onlinaz aparte ([www.papayashop.com](http://www.papayashop.com)), Papayaren produktuen eskaintza sare sozialetan aurki dezakezu, hala nola Instagramen (@papayabakerynshop), non aurki ditzakezu gure produktu berrienak eta haien prezioak.
  - **Salmenta ondorengoak:** Instagramen bidez inkesta desberdinak egiten ditugu produktuaren balorazio bat izateko, dendan ditugun produktuak ezin dira bueltatu, gehienak bezeroa probatu ondoren beste bezero bati ezin direlako saldu. Kafetegian ere gure bezero fidelentzako deskontu batzuk dauzkagu. Adibidez, zure lehenengo kafea erostean, txartel bat emango dizugu, gero etortzen zaren bakoitzean puntu bat lortzen duzu eta bost puntu lortzea, kafe bat dohainik lortuko duzu.
- **Banaketa eta salmenta kanalak:** Gure banaketa kanala denda fisikoa izan arren, gure online dendan, ere gure produktuak eskuragarri ditugu.

